



EAJ udal taldearen bozeramaile Jon Insausti Mitxelena, PSE-EE udal taldearen bozeramaile Ernesto Gasco Gonzalo, EH Bildu udal taldearen bozeramaile Amaia Almirall López de Luzuriaga, PP udal taldearen bozeramaile Miren Albistur Garmendia eta Irabazi Donostia udal taldearen Amaia Martín Garin zinegotziek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, eztabaidagai aurkezten diote Udalbatzari hurrengo MOZIO ARRUNTA.

### **MOZIO ARRUNTA, BENTABERRIKO ALOKAIRUKO BABES OFIZIALEKO ETXEETAN MAIZTERRAK BOTATZEKO PREBENTZIO PROTOKOLO BAT EZARTZEKO**

Duela gutxi, BentaBerrin 90. hamarkadaren erdialdean jasotako alokairuko babes ofizialeko etxebizitza bat ez ordaintzeagatik kaleratze kasu bateko legez izapidetzeak berriro jarri du hizpidean higiezinaren sustapen horren egoera, eztabaida ugari izan baititu urtea joan urtea etorri.

Arestian aipatutako kaleratzeak azkenean saihestu ahal izan zuten arren, Bentaberriko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenaren ezaugarriak ikusita, erantzun mekanismo bat egitea komeni da, era horretako egoera bat berriro gertatuz gero, azkar eta eraginkortasunez jarduteko. Horretarako, eta Gipuzkoako Stop Kaleratzeak plataformak bultzatutako ekimen bat jasota, gure ustez, Eusko Jaurlaritzak prebentzio jarduera protokolo bat egitea da jarduera ildo egokiena, hura baita alorreko administrazio eskuduna.

Hori dela eta, tadle izenpetzaileek honako hau aurkeztu dugu

### **MOZIO ARRUNTA**

1. Donostiako Udalbatzak kezka adierazten du Bentaberriko alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren egoera dela-eta, bai eta azaldu ere interesgarria dela prebentzioko jarduera protokolo espezifiko bat garatzea, horrelako sustapen batean sortu litezkeen kaleratze kasuetarako, ezaugarri bereziak dituen gero.
2. Donostiako Udalbatzak enpresa emakidadunarekin lan egiteko protokolo bat egin, adostu eta indarrean jartzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, Bentaberriko alokairuko babes ofizialeko etxebizitzetan kaleratzerik gertatuz gero jokatu ahal izateko.
3. Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari eskura duen informazioa udalari emateko, bai jarduketa protokolo horren garapenari buruzkoa, bai Bentaberriko alokairu araubideko babes ofizialeko etxebizitzetan sortu litezkeen kaleratze kasuen inguruan.

Donostian, 2019ko martxoaren 29an

Jon Insausti Maisterrena,  
EAJren bozeramailea.  
bozeramailea.

Ernesto Gasco Gonzalo,  
PSE-EE Donostiako Sozialisten

Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostiaren bozeramailea.

Miren Albistur Garmendia,  
PPren bozeramailea.

Amaia Almirall López de Luzuriaga,  
EH Bilduren bozeramailea.